

## “Ze-neke!” belaunaldia

**D**NA aipatu duzu José Luis, eta literaturan taxuzko DNA edukitzeko beti da komenigarri belaunaldi baten parte izatea. Errealismo magikoaren adibidea bera hortxe dugu. “Boom latino-amerikarra” delakoak plazaratzeko parada ederra eskaini zien hainbat idazleri, tartean “errealismo magikoaren” etiketapean sartu izan direnak. Ez dirudi belaunaldi horri jokaldia gaizki atera zaionik, José Luisek aipatzen dituen idazleetatik bik jaso dute Nobel saria –Gabriel García Márquez eta Mario Vargas-Llosak– eta Carlos Fuentes beti azaldu ohi da kinieletan.

Jakina da, hori bai, inori ez zaiola atsegin bere burua belaunaldi baten pean ezartzea, idazle guztiak esango dizute belaunaldiena gasetako edo kritikarien txorakeriak direla, norberak mundu bakar, benetako eta konparaezina osatzen duela. Nik, ordea, faltan nabaritzen dut. Posmodernitate gaseosoaren noraeza existentziala izango da agian, baina belaunaldi baten parte izatearen bertan-goxo hori nahiko nuke sentitu, taldearen epela eta babesa.

Izan ere, nire adinkideak-edo diren batzuek Orgasmus belaunaldia sortu dute, Txalapartak sustatu eta argitaratutako *Orgasmus* liburua tarteko, baina talde horren kanpo geratu naiz, umezurtz. Dena emango nuke Orgasmusen kide izateko. Sarritan desirak eta errealitatea ezin bat etorri ordea. Kontua da Orgasmus belaunaldia emakumeek osatzen dutela bakarrik. Generoz aldatzeko prest nengoke delako belaunaldiaren parte izateko, baina zalantza egiten dut horrek ere balioko lukeen. Gure arteko feminismoaren zenbait aldeztailerentzat emakume izatea gauza berezi, berezko, misterioitsu, ezin azalduzkoa baita, gainontzeko mundutarrok –emakume ugarik barne–

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Apaolaza



Padroin

ulertu ezin duguna. Patriarkatuaren subordinatua den feminismo mota biktimista-folklorista-enpresarial honentzat, genero aldaketa ezinezkoa da, eta hala, alferrikakoak lirateke nire eginahal guztiak. Emakumeak emakume dira eta gizonak gizonezko. Irati Jimenezek kontrakoa agintzen ez duen

bitartean, eta nire zoritxarrerako, ezin Orgasmus belaunaldiaren kide izan.

Honenbestez, nire kabuz belaunaldi berri bat sortzea pentsatu dut. Orgasmustarrek Erasmus zena Orgasmus bihurtu zuten aparteko gatz eta graziaz. Bada ni Europa zabaleko hirietako batean bizi ordez Espainiako estatuko batean –Bartzelonan– bizi naizenez, balizko Seneca belaunaldia “Ze-neke!” belaunaldi bihurtzea proposatzen dut. Horretarako, has-teko, liburu bat, DVD bat, kamisetak, pegati-nak eta txapak aterako ditugu. Luze gabe *sara-oak* han-hemenka: poesia errezitaldiak, testu irakurketak, kontzertuak, bertso saioak, hitzaldiak, mahainguruak, kalejirak... Guztia, esan gabe doa, egungo literatur sistema hierarkizatu-atzerakoi-kapitalista-matxista-arrazista-desarrollista salatzeko eta gure ahotsa –gazteak izaki behin eta berriz zapaldua– entzuna izan dadin. Jakin badakigu hozkia eragingo diola hainbati egitasmu apurtzaile, probokatzaille eta jasanezin honek, baina euskal literaturaren berriztapenean urrats erabakigarria izango da *sindudarik gabe*.

Uxue, orrialde hauek erabili nahi ditut, zu ere Orgasmusetik kanpo geratu zinela aprobe-txatuz (ez dakit *Bueltak* ipuinaren erruz-edo), “Ze-neke!” belaunaldiaren kide izatera gonbidatzeko. José Luis, lubakitarrek kanpo utzi zintuztenez eta adin kontuetan zein bestelakoetan aski malguak garenez, zuretzat ere badugu lekua euskal literatura iraultzera datorren belaunaldi honetan parte hartzeko. ■



Gure arteko feminismoaren zenbait aldeztailerentzat emakume izatea gauza berezi, berezko, misterioitsu, ezin azalduzko eta sekretuzkoa da, gainontzeko mundutarrok –emakume ugarik barne– ulertu ezin duguna

